

# Irakasleentzako Glogster tutoriala


Glogster lineako tresna bat da poster digitalak edo glog-ak –blog grafikoak– sortzeko. Testuak, irudiak, bideoak edo audioak oso erraz eta modu dinamikoan integratzen ditu. Proposatzen duen ikusizko formatua erraz egokitzen zaio gure ikasleen sormen-adierazpideari, eta informazioa zenbait euskarri integratuz komunikatzera bultzatzen ditu.

Tutorial honetan atal hauek azaltzen dira:

- Glogsterren sartzea 1 or.
- Glogsterren erregistratzea eta eskola birtual bat sortzea 2. or.
- Ikasleen posterren jarraipena 5. or.
- Glogeko elementuen edizioa 5. or.
- Objektuak txertatzea: grafikoak, testuak edo honoa 6. or.
- Objektuak txertatzea: irudi-, bideo- edo soinu-fitxategiak 7. or.
- Gloga gordetzea eta argitaratzea 11. or.

## Glogsterren sartzea

1. Ireki irakasleentzako **Glogster** webgunea: <http://edu.glogster.com/>
2. **Glogster** erabiltzen ohitzeko, egokiena, poster bat sortzen ahalegintzea da. Sakatu **TRY TO CREATE YOURS aukera** (ahalegindu zurea sortzen).



Glogsterreko hasierako pantaila

3. Probak egiteko, zenbait elementu dituen poster bat bistaratuko da. Saiatu elementu horiek mugitzen, haien tamaina aldatzen, ezabatzen. Proba egin botoi guztiekin, zer egiteko balio duten ikasteko.




*Glogsterreko hasierako posterra*

## Glogsterren erregistratzea eta eskola birtual bat sortzea

Tresna probatu ondoren, iritsi da erregistratzeko eta ikasleentzat erabiltzaileak sortzeko unea.

1. Egin klik [Register Virtual Class](#) aukeran; hasierako orrian dago ([Glogster edu](#))



*Glogsterreko hasierako pantaila*

2. Osatu erregistratzeko inprimakiko eremua eta sakatu [Sign up](#).

**Glogster** BETA **EDU** [New Glogs](#) [Categories](#) [G-lab](#)

**Register to EDU**

Nickname:

Password:

Confirm password:

E-mail:

Remember me on this computer.


First name:

Last name:

Birthday: January 1 2010

Gender:  Female  Male

Country: -- Select Country --

Type the code shown: 

ENTER THE ABOVE CODE, PLEASE


I agree to the [Terms of Use](#)

Glogsterren erregistratzeko inprimakia

3. Erregistratu ondoren, Glogster erabiltzaile moduan sartuko gara hasierako pantailara edo kontrol-panelera (dashboard).

**Glogster** BETA **EDU** [My dashboard](#) [New Glogs](#) [Hi ticcurricular](#) [Logout](#) [Create a Glog](#)

**My dashboard** **You haven't authorized your email yet!** [Resend an authorization email](#) [Edit my profile](#) [View my profile](#) [Account settings](#) **0 %** of your profile is ready

**ticcurricular**  **Online**  
Tic Curricular  
Female  
0 years  
Spain

Forget Blogging, try Glogging!

How do I feel right now?  
**G!-) Learning with Glogster**

**1**  
0 Glogs  
0 Friends  
0 Views

**CREATE A NEW GLOG**

**Messages** (1 new!) - [view all](#)

[Select all](#)

**GlogsterEDU**, 1 minute \* (new!)  
[Welcome to GlogsterEDU 1.5!](#)

[Select all](#)

1 messages

**Students**  
You don't have any students now. Add students here!

**Glog Alerts**

Erabiltzailearen hasierako pantaila Glogsterren

4. Gure ikasleak ere erabiltzaile bihurtzeko, sakatu **Add new students** aukera.
5. Leiho bat irekiko da, eta zenbat ikasle-kontu sortu nahi ditugun galdetuko digu. Idatzi kopurua (gehienez ere 200) eta sakatu **Add accounts**.
6. Kontuak sortu eta hasierako pantailan bistaratuko dira —ikono bat sortutako kontu bakoitzeko, pantailaren eskuinaldean—, bai eta mezu berri bat ere ezkerreko panelean. Mezua irekitzen badugu, ikasle-kontu bakoitzerako sortutako erabiltzaile-izenak (nickname) eta pasahitzak (password) aurkituko ditugu; mezu hori bera jasoko dugu erregistratuta daukagun posta elektronikoko kontuan. Datu horiek banatu beharko ditugu posterra sortzen lan egungo duten ikasle-taldean edo -bikotean artean.

**Messages** (0 new!) - [view all](#)

**Select all**       

**GlogsterEDU**, 1 minute

Glogster EDU subaccounts for nickname :

Your generated Student's accounts:

Nickname: swzpcdb  
Password: pkvvdY8g4e

Nickname: sqkhkqu  
Password: 5xh8nxfy7

Nickname: stx9e58  
Password: d06bdjtd3

Nickname: sfqg2a8  
Password: uki0l9a9g0

Nickname: sw5qv9x  
Password: iko0v265gz

**Students**

<a href="#">sw5qv9x</a> 0 Glogs	<a href="#">sqvtuoc</a> 0 Glogs	<a href="#">swzpcdb</a> 0 Glogs
<a href="#">skqwzmd</a> 0 Glogs	<a href="#">s38o3er</a> 0 Glogs	<a href="#">sqkhkqu</a> 0 Glogs
<a href="#">syr9ah2</a> 0 Glogs	<a href="#">s9kwd4h</a> 0 Glogs	<a href="#">stx9e58</a> 0 Glogs

   **12 students** - [show all](#)

New Glogs from classmates

*Glogsterren erregistratutako erabiltzaile baten hasierako pantaila eta sortutako ikasle-kontuak*

Edozein unetan, ikasle-kontu gehiago gehitu ahal izango dira prozedura hori bera erabiliz. Beharrezkoa da gure irakasle-kontua baieztatzea, ikasleek beren erabiltzaile-kontuak balia ditzaten. Horretarako, gure posta elektronikoa irekiko dugu (erregistratzeko inprimakian idatzi genuen posta-helbidea), eta Glogsterrek automatikoki bidalitako mezua bilatuko. Mezuan, [Confirm your account by clicking here, please](#) esteka sakatuko dugu, eta **Glogster** irekiko. Gure posta elektronikoko helbidea onartua izan dela dioen legenda bat azalduko da (goialdean).

**Glogster** BETA **EDU** My dashboard New Glogs

Hi [accountular](#) Logout [Create a Glog](#)

   [Edit my profile](#)    [View my profile](#)    [Account settings](#)    0 % of your profile is ready

*Posta elektronikoaren baieztatze-oharra Glogsterren*

Orain bai, prest gaude tresna ikasleei aurkezteko eta sarrerako datuak banatzeko. Ikasleek posta elektronikoa badute, beheko mezua bidal dakieke. Mezu horrek Glogsterren sartzeko eta lehen urratsak egiteko beharrezko informazioa jasotzen du. Bestela, testu-fitxategi bat egin daiteke lantalde bakoitzarentzat –ikastetxeko sarean gordeko da–.

Sartu hemen: <http://edu.glogster.com>. Sartu ondoren, sakatu [Login](#) pantailaren eskuinaldeko goialdean.

Honentzat idatzi:

Nickname: .....

Password: .....

Gero, sakatu [Log In](#)

Komeni da sarrerako gakoa aldatzea, eta erraz gogora dezakezuen bat hautatzea.

Horretarako, egin klik [Account settings](#) aukeran; pantailaren goiko eskuineko aurkituko duzue.


Prest zaudete hasteko! Bilatu [Create a new glog](#) aukera zuen hasierako pantailaren erdialdean, eta ekin!

*Glogsterren sartzeko datuak banatzeko mezua eredu*

## Ikasleen posterren jarraipena

Glogsterren gure irakasle-erabiltzaile kontuaren bidez sartzan bagara, ikasleen lanaren jarraipena egin dezakegu.

Gure kontrol-panelean ([dashboard](#)) kokatuta, erraz bereiz ditzakegu hauek:



*Ikasleen jarraipen-aldea Glogsterren*

- Glogsterren sartu diren ikasleak. Zirkulu hori batek identifikatzen ditu (irudian, lehendabiziko bi ikasleak).
- Beren gloga sortzen hasi diren ikasleak (irudian, lehen ikaslea).
- Gutun-azal baten ikonoa sakatuta, oso erraz eta azkar bidal dezakegu mezu bat Glogsterren bidez.
- Ikasle baten erabiltzaile-izena sakatzen badugu, haren [Glogean](#) sartuko gara, eta egingakoari buruzko iruzkinen bat utz diezaiokegu.

## Glogeko elementuen edizioa

Ikasleek Glogsterren egin beharreko lana gidatzeko, funtzio nagusietako batzuk aztertuko ditugu. Beharbada ikusiak dituzu zure kasa egindako esplorazioan!

Poster batean sartzeko objektu bakoitza aukeratzean, menu bat aurkituko dugu, zenbait aukera dituena; bai eta, irudiaren inguruan, geziz betetako lauki bat ere. Ikus dezagun zer esan nahi duen haietako bakoitzak.




1. **Edit** aukerak beste menu bat bistaratzen du; menuan irudiko testua editatzeko aukerak daude: kolore bat zehaztea, hiperesteka bat txertatzea, tamaina edo iturria aldatzea eta 'efektu bereziak' gehitzea, hala nola, itzalak, gardenkiak eta abar. Nahi diren aldaketak egin ondoren, beharrezkoa da OK sakatzea aurreko menura itzultzeko.



2. **Ekarri aurrera**. Aukera honek objektu bat beste baten aurrean jartzea ahalbidetzen du, objektuak gainjarrita daudenean.
3. **Eraman atzera**. Objektu bat beste baten atzean jartzea ahalbidetzen du.
4. **Klonatu**. Objektu baten kopia egiteko erabiltzen da.
5. **Ezeztatu aldaketak**. Objektuan egindako aldaketak ezeztatzen erabiltzen da.
6. **Delete**. Objektua ezabatzeko erabiltzen da.
7. Izkinetan dauden geziak irudia handitzeko edo txikitze balio dute.
8. Marra baten erdian dauden geziak objektua birarazteko erabiltzen dira.

## Objektuak txertatzea: grafikoak, testuak edo atzeko planoak

Objektu bat sartzeko, ezkerreko aldean zabaltzen den menua erabiltzen da.




*Elementuak txertatzeko menua*

Grafikoak (**GRAPHICS**), testu-laukiak (**TEXT**) edo posterrerako atzeko planoak (**WALL**) txertatzeko, aski da galeriako elementu bat hautatu eta aukera hau sakatzea:

**USE IT!**






Ezkerreko menua Glogsterren

Galeriak gaien arabera daude antolatuta (1). Gai bakoitzaren barruan, behealdeko zenbakiak (2) erabil ditzakegu aukera gehiago ikusteko. Erabili nahi dugun grafikoa aurkitutakoan, sakatu **USE IT!** (3) eta gure posterrean agertuko da.


## Objektuak txertatzea: irudi-, bideo- edo soinu-fitxategiak

Hiru aukera daude irudiak, bat-bateko argazkiak (**IMAGE**), norberak egindako bideoak edo webgune batekoak (**VIDEO**) eta soinuak (**SOUND**) txertatzeko: upload, link o grab. Ikus dezagun zer-nolakoak diren aukera horiek.



### 1. Upload (Glogsterrera igotzea)


Gure disko lokalean zuzenean sartu eta nahi dugun irudi-, bideo- edo audio-fitxategia bilatzeko balio du. **Upload** prozesua amaitzean, fitxategia galerian zabaltzen da, eta aukeratu egin daiteke. Irudiari marko bat gehi dakiok **Add a frame** aukera erabilita; askotarikoak eta oso originalak dira. Amaitutakoan, sakatu **USE IT!**



## 2. Link (esteka)

**Link** aukerari esker, irudi, bideo edo audio bat txerta daiteke web-helbide baten bidez. Hiru fitxategi-motek, webgune batean daudenean, web-helbide zehatz eta bakarra dute (beste aplikazio batean –flash, adibidez– kapsulatuta egon ezean). Glogsterrek aukera ematen du helbide hori erabilita objektua estekatzeko, aurrez ordenagailuan deskargatu gabe.

YouTubeko eta antzeko zerbitzuetako bideoek, orokorrean, estekadura hori egiteko URL helbidea ematen dute.




*YouTube argitaratutako bideo baten web-helbidea kopiatzeko prozedura*

Nola aurkitu irudi baten web-helbidea?

Irudi batean kokatzen bagara, eskuineko botoia sakatu eta **Kopiatu irudiaren ibilbidea** aukeratzen dugu. Gero, horri esker, Glogster-eko Link aukera sakatzean irekitzen den laukian itsatsi ahal izango dugu irudiaren ibilbidea. Ondoren, sakatu **Add to your files**. Elementua (irudia, audioa edo bideoa) Galerian txertatzen dela ikusiko dugu.






*Irudi baten web-helbidea kopiatzeko prozedura*

### 3. Grab (grabatu)

**Grab** aukerari esker, bideo edo audio bat graba daiteke, edo bideokameraz jasotako batakoteko irudi bat hartu.


**Grab** aukera sakatzean, aplikazioak baimena eskatuko du web-kamera eta mikrofonoa erabiltzeko; **Allow** aukeraren bidez emango dugu baimen hori. Ordenagailuak mikrofonoa badu, baina ez web-kamerarik, aplikazioak audioa grabatzeko baino ez du funtzionatuko, eta bideo- nahiz irudi-aukerak ezkutatuta egongo dira.



*Glogsterrek baimena eskatzen du web-kamera eta mikrofonoa erabiltzeko*


Baimena eman ondoren, web-kamera aktibatu egiten da, eta hartzen duen irudia pantailan ikus dezakegu. Grabatzeko prozedura hiru urrats errazez dago osatuta:

1. urratsa: sakatu **Record**, eta grabazioa gelditzeko, **Stop Recording**.



Bideoa, audioa edo bat-bateko irudiak grabatzeko aplikazioa, Glogsterren

2. urratsa: erreproduzitu grabazioa –mantsotu edo gelditu egin dezakegu, ondo grabatu dela egiaztatzen—, etagero, sakatu **Continue**.
3. urratsa: jarri izena eta etiketak bideoari, eta sakatu **Save** bideoa galerian gordetzeko. Bideo gehiago grabatu nahi ezean, itxi lehioa.



Bideo bat Glogsterren gordetzeko 3. urratsa

Bideoa **My videos** galerian gordetzen da, **Video** itimean. Bideo bat aukeratu ondoren, zenbait aukera grafiko bila daitezke, bideoa agertuko den markoa eta hasteko botoia (**Players**) aurkezteko. Bideoen galerian, **Add a player** sakatu behar dugu, eta aukeretako batzuk hautatu **Add a Media erabiliz**. Ondoren, bideoa guk aukeratu bezala erreproduzitzen da. Sakatu **USE IT!** bideoa posterrean txertatzeko.



Bideo bat Glogsterren aurkezteko erreproduzitzaileak

Ikasleek nor bere mezuak edo iragarki ak graba ditzakete, bai eta beste pertsona batzuei egindako elkarrizketak ere.

## Gloga gordetzea eta argitaratzea


1. Sakatu **Save** egindako lana gordetzeko.
2. Zabaltzen den leihoan, jarri izena Glogari; bai eta kategoria eta etiketak ere, edukia deskribatzeko. Gainera, bi egoera aukera ditzakegu Glogarentzat: **Finished** (amaitua) eta **Unfinished** (prozesuan). Horrela, Gloga zenbait etapatan egin ahal izango da, eta ez da argitaratuko bukatutzat jotzen ez den bitartean.


Glog bat argitaratzeko prozedura

**Finished** aukeratzaren badugu, bloga Glogsterren argitaratuko da. Ondoren, zenbait aukera zabaltzen dira hura zabaltzeko. Esteka bat sortu daiteke; beste gune batzuekin partekatu (MySpace, Facebook...); edo kode bat kopiatu, webgune, wiki edo blog batean kapsulatzeko.







## ✓ Your Glog has been published

### What next?

 **Link your Glog**

 **Share your Glog**

[Post](#) [Bookmark](#) [Email](#)

 MySpace  Facebook  Bebo  Twitter  Yahoo  More

Embed code:

```
<embed src="http://edu.glogster.com/flash/flash_loader.swf?ver=1258222405"
flashvars="sl=http://edu.glogster.com/flash/glog.swf?ver=1258222405&gi=3977566&ui=1921453&li=3&fu=http://edu.glo" />
```

[gigya](#)

*Glog bat beste aplikazio batzuetan argitaratzeko aukerak*

Azkenik, Gloga nola gelditu den ikus dezakegu ([View this Glog](#)), editatzen jarrai dezakegu ([Continue editing](#)), edo hasierako pantailara itzuli ([Back to dashboard](#)).